

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ogasunak 680.000 euro aurreztuko ditu urtean jakinarazpen-sistema elektronik berriarekin

Posta bidezko jakinarazpenak pixkanaka baztertuko dira, eta prozesu hori asteazken honetan jarriko da martxan, borondatez izena eman duten lehenengo 4.900 zergadunekin.

Asteazkena, 2018.eko apirilak 4

Asteazken honetatik, apirilaren 4tik, aurrera, Nafarroako Zerga Ogasuna bide telematiko hasiko da jakinarazpenak igortzen behartutako zergadunei eta sistemari borondatez atxiki nahi zaizkionei.

Nafarroako Gobernuaren Jakinarazpen Elektronikoen Prozedura sistema guztiz segurua da, konfidentziala, eta antolamendu juridikoan xedaturiko berme guztiak ditu. Harekin, aurrerapausoak eman nahi dira administrazio-prozedurak sinplifikatzen eta arrazionalizatzen. Ogasunak aurreikusten du 400.000 jakinarazpen bidaliko dituela aurten, eta horien % 55 inguru bitarteko elektronikoen bidez bidal litezke. Hala, 680.000 euro aurreztuko lirateke, gutxi gorabehera, urtean.

Organismo autonomoak jakitera eman duenez, jakinarazpenak bide horretatik jaso nahi dituztela jakinarazi duten 4.900 zergadunekin jarriko da abian sistema. Zerbitzu hori jaso ahal izateko, jakinarazpenak jaso direla ziurtatzeko aukera ematen duen bitarteko elektronikoa bat eduki behar da, hala nola gaitutako helbide elektronikoa (GHE) bat. Nafarroako Zerga Ogasunaren webgunean kontsultatu daiteke sistema berriari buruzko informazio guztia.

Jakinarazpen elektronikoen posta bidezko jakinarazpenen antzera funtzionatzen dute. Zergadunek ohar bat jasoko dute gaitutako beren buzoian, eta 10 egun izango dituzte jakinarazpenean sartzeko. Hori egin ezean, baztertutzat joko da. Horrez gain, [Nafarroako Zerga Ogasunaren webgunean](#) jakinarazi ahal izango dute zein egunetan ez duten jakinarazpenik jaso nahi, eta jada entregatutakoen historia kontsultatu ahal izango dute.

Sisteman izena ematea borondatez eskatzen duten zergadunetz gain, Nafarroako Zerga Ogasunak gogorarazten du zergadun jakin batzuek legeak hala behartuta eman behar dutela izena; hots, Nafarroako Zerga Ogasunarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzera behartuta daudenek, batez ere pertsona juridikoen (Nafarroako toki-erakundeak eta haien mendeko organismo publikoak barne) eta nortasun juridikorik ez duten baina 150.000 zergadun baino gehiago dituzten erakundeek. Aurrerantzean, talde horri guztiari jakinaraziko zaio sisteman sartuko direla jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.